

Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala

242. zenbakia

Data 2001-12-19

23477 orria

7 UDAL ADMINISTRAZIOA

DONOSTIAKO UDALA

Baserritarren produktuen eguneroko merkatuaren erregelamendua. Behin betiko onespena.

DONOSTIAKO UDALA

Zerbitzu Bereziak

Iragarkia

Donostiako Udalak, 2001.eko abenduaren 3ko bilkuran erabaki zuen behin betiko onartzea Bretxa ondoko bertako (baserritarren) produktuen eguneroko azokaren Araudia.

Erabaki hau behin betiko da eta administrazio bidea amaitzen duenez gero, errekurtsua aurkez daiteke bi hilabeteko epean Euskal Herriko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Bilboko Sailean.

Iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko dira lehen esandako epeak.

Apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 70.2 artikuluan xedaturikoaz bat, lege hori baita Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen, Araudia argitaratzeari ekin dio Udalak.

Donostia, 2001eko abenduaren 10a.—Juan Jose Martinez Aguado, Zerbitzu Berezien Burua. (13195)

«BRETXA» ONDOAN BERTAKO PRODUKTUAK SALTZEKO BASERRITARREK EGUNERO EGITEN DUTEN AZOKARI BURUZKO ARAUAK

1. ATALA

XEDAPEN OROKORRAK

1. *artikulua.* Done Joan kalean, Bretxako Azokaren eraikinaren ondoan dagoen eremua hemengo produktuak saltzeko baino ezin da erabili eta ekoizleek berek saldu behar dituzte beren produktuak, bitartekorik gabe.

2. *artikulua.* Aurreko artikuluan aipatutako eremuan, bertako produktuen azoka astelehenetik larunbatera egingo da, goizez, jaiegunetan izan ezik.

3. *artikulua.* Saltokiek bi metro luze izango dituzte eta metro bat zabal, gehienez. Udalak erabakiko du saltokiak non jarri. Zenbaki bana emango die eta saltzeko baimena eskuratzen dutenek ezin izango dituzte zenbakiok aldatu.

4. *artikulua.* Arau hauetako I. eranskinean zerrendatutako elikagaiak baino ezin dira saldu, eta salmentak txikizkako izan behar du. Elikagaiok Gipuzkoan ekoiztuak izan behar dute, Udalak salbuespen gisa baimena ematen duenean izan ezik.

II. ATALA

SALTZEKO BAIMENA

5. *artikulua.* Beren produktuak azokan saldu nahi dituztenek baimena eskatu beharko diote Udalari.

6. *artikulua.* Baimena lortzeko betekizunak:

a. Eskatzaileak egiaztatu beharko du baserritarra dela. Horretarako, Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako adierazpena aurkeztu beharko du. Adierazpen hori Jabeen Katastroko datuekin alderatuko da.

b. Elkarte, kooperatiba eta bestelako zuzenbide izakiek eskatu ahal izango dute baimena, baldin eta enpresaizena Gipuzkoan emana badute eta saldu nahi duten produktuak berek ekoizten dituztela egiaztatzen badute. Landutako produkturik salduz gero, lehengaia beren baserrietatik datorrela egiaztatu beharko dute.

c. Donostiako Udalean eskabidea aurkeztu beharko dute, agiri hauekin batera:

— Eskabide orri normalizatua, behar bezala beteta.

— NANaren fotokopia.

— Nekazaritzako Gizarte Segurantzaren izena emana dutela egiaztatzeko agiria.

— Osasun baimenaren fotokopia, baldin eta saldu behar dituzten produktuek osasun gidaren beharra badute.

— Behemendik edo Gipuzkoako Foru Aldundiak izendatutako beste erakunde batek emandako agiria, honakoa egiaztatzen duena: Eskatzailea baserritarra dela eta gai dela azokan saltzaile moduan irauteko behar beste produktu ekoizteko.

— Ekoizten dituen produktuen zerrenda.

7. *artikulua.* Aurkezturiko agiriak ikusita, udal organo eskumendunak txostena egingo du eta, horren ondorioz, proposamena egingo dio baimena emateko erabakia hartu behar duen udal organoari.

8. *artikulua.* Saltzeko baimena lagun jakin bati emango zaio, urtebeterako, eta honek ezin izango dio beste inori eman. Baimena jabez aldatzeko eskaerarik onartuz gero, baimen berri bat ematen dela joko da.

Aurreko urteetan baimena lortu izana ezin izango da berriro lortzeko argudio gisa erabili.

9. *artikulua.* Baimena eskuratzen duenak udal ordenantzak ezartzen dituen tasak ordaindu beharko ditu.

Ordainketa hiru hilean behin egingo da, hiru hilabeteak amaitutakoan.

10. *artikulua.* Salmentari ekin baino lehen, baimenaren jabeak fidantza bat utzi beharko dio Udalari, sei hilabeteko tasa adinakoa. Baimenak dirauen bitartean gordeko du Udalak fidantza hori. Epea amaituta, baimenaren jabeak fidantza itzultzeko eskatu ahal izango du. Zerbitzu Bereziako Udal Saila horren alde agertuz gero, itzuli egingo zaio.

Baimenaren jabeak, lanean ari dela, herri ondasunei edo azokako instalazioei kalterik eginez gero, fidantzatik ordainduko dira.

11. artikulua. Baimenaren jabeak honako betebeharrak ditu:

a. Berak ekoiztutako produktuak saltzea. Hala eta guztiz ere, baserri gehienak nolakoak diren aintzat hartuta eta horrelako azoketan oinarritzko diren produktuak Bretxako honetan ere salduko direla ziurtatzeko, beste baserriar batzuek ekoiztutako produktuak ere saldu ahal izango dira.

b. Baimen orrian izendatu zaion saltokia berak ustiatzea. Ezin du aldatu ez zenbakia ez kokapena.

c. Udal zerbitzuek hala eskatuta, bi agiri hauek aurkeztea: Saltzeko baimena, batetik, eta, bestetik, baimenaren jabea bera dela aditzera ematen duen agiria.

d. Bere saltokiak hartzen duen esparrua baino ez hartzea, salgaiak handik kanpo utzi gabe eta jendearen igarobide diren tokiak okupatu gabe.

e. Lana dela eta sortzen diren hondakinak Udalak agindutako tokietan utzi beharko ditu. Lanaldia amaituta, saltokia eta ingurua txukun utzi beharko ditu eta erabili dituen osagaiak Udalak agindutako tokietan gorde.

f. Lan egiteko beharrezko diren zamatanak Udalak agindutako toki eta orduetan egingo dira. Amaitutakoan, erabilitako ibilgailuak kendu beharko dira inguru hartatik.

g. Araudi honetan ezarritakoa eta salmenta mota horri dagozkion beste xedapen guztiak betetzea.

h. Donostiako Udalak baimendutako lanak baino ez egitea azokan.

i. Azokan inolako istilurik ez eragitea.

j. Saltokia erabili behar ez duenean, azoka ireki aurretik Udalari jakinaraztea.

k. Hiru hilean behin, tasak ordaintzea.

l. Lana dela eta herri ondasunetan edo azokako instalazioetan zerbait hondatuz gero, konpontze gastuak ordaintzea.

m. Orduetegi hauek betetzea:

—Zamatanak: Goizeko zazpietatik aurrera.

—Salmenta zerbitzua: Goizeko zazpi eta erdietatik aurrera.

—Salmenta zerbitzuaren amaiera: Arratsaldeko ordu bi eta erdietan.

—Saltokia guztiz jasota: Arratsaldeko hiruretan.

Udalak ordutegiok aldatu ahal izango ditu, zer edo zerengatik beharrezkoa bada.

12. artikulua. Honako arrazoiak direla eta galduko da baimena:

a. Baimen jabeak hala nahi duelako. Udalari behar bezala jakinarazi beharko dio erabakia.

b. Tasak ordaintzen ez dituelako.

c. Arrazoirik eman gabe, saltokia bi astez erabili ez

duelako.

Horrelako zerbait gertatuz gero, espedientea irekiko da. Baimen jabeari entzunaldia eskainiko zaio, alegazioak aurkez ditzan. Baimena galtzeak ez dio jabeari kalteordainik jasotzeko inolako eskubiderik emango.

III. ATALA

BERTAKO PRODUKTUEN AZOKAREN ANTOLAMENDUA

13. artikulua. Bertako produktuen azoka, baserritarrena, antolatu eta zuzentzeko ardurua Bretxako Merkatuko Batzordeak du. Sei kide ditu batzorde horrek:

—Donostiako Udaleko bi ordezkari.

—Mendi Nekazaritzako Elkarteko kide bat.

—Nekazaritza Sindikatuko kide bat.

—Baserritarren ordezkari bi.

14. artikulua. Hona Batzordearen eginkizunak:

—Produktuak saltzeko baimen eskaerak aztertu eta txostena egitea.

—Azokako lanak kontrolatzea.

—Ekintza berriak sustatu eta gauzatzea, bertako produktuen azoka hobetze aldera.

—Baimen jabeen arteko auzietan, adostasunezko konponbidea bultzatzea; halakorik lortzerik ez badago, Udala jakinaren gainean jartzea, behar izanez gero dituen administrazio ahalmenez balia dadin.

—Azokan bete beharreko arauen kontrako jokabiderik egonez gero, Udalari jakinaraztea.

IV. ATALA

IKUSKARITZA ETA ZEHAPENAK

15. artikulua. Donostiako Udalak, azoka zaintzeko eginkizunak betetzearren, bai produktuak bai jarduera bera ikuskatu ahal izango ditu eta horretarako behar duen informazioa eskatu ahal izango die baimen jabeai.

16. artikulua. Hona hemen arau honetan ezarritakoaren kontrako huts egiteak:

a.Huts egite larriak:

1.Udalaren baimenik gabe, produktuak saltzea.

2.Saltokia inori uztea, edozein dela horretarako baliaitutako titulua.

3.Bete beharreko osasun arauak larriki haustea.

4.Huts egite arinak behin baino gehiagotan egitea.

b.Huts egite arinak:

1.Lan ordutegiak ez betetzea.

2.Bete beharreko osasun arauak arinki haustea.

3.Bi astez baino gutxiagoz saltokia erabili gabe izatea, horretarako arrazoirik eman gabe.

4.Araudi honetako 11. artikuluan ezarritako gainontzeko bete beharrak ez betetzea.

*17. artikulua.*Zehapenak.

a.Huts egite larriengatik isuna ordaindu beharko da, 150.000 pta. artekoa. 16.a artikuluan, 1 eta 2. zk.etan aipatutako hutsak eginez gero, saltzeko baimena ere kenduko zaio.

b.Huts egite arinengatik, 75.000 pta. arteko isuna ordaindu beharko da.

Zehapenaren zenbatekoa erabakitzeko, kontuan izango da zernolako garrantzia duen egindako hutsak, kaltearen nolakoa, kaltea egiteko asmorik zegoen ala ez eta hutsa behin baino gehiagotan egin den ala ez.

*18. artikulua.*Zehapenak ezartzeko, udal sail egokiak zehapen espedientea bideratu beharko du, herri administrazioen zehapen ahalmena arautzen duten xedapenei jarraiki.

Espedientearen barruan, Bretxako Azokako Batzordeari entzunaldia eskainiko zaio (13. artikuluan aipatu dugu batzorde hori).

Zehapenak ezartzeko ahalmena alkateak izango du edo, bestela, hark izendatutako zinegotziak.

*19. artikulua.*Atal honetan aipatutako huts egite eta zehapen arinek sei hilabete iraganda galduko dute indarra. Larriek, urtebete iraganda.

Azken Xedapena. Araudi honek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biaramunean artuko du indarra.